

# TXISTULARIA

Udal-etxe aurrean  
tente txistularia...  
Inguruan begira,  
ume-talde txikia...

Txistu maitekoaren  
soñu zoli, gozoak,  
alaitasun-geznari  
agurtzen dauz auzoak.

Agurau erantzunik  
baña ez dau entzuten...  
¿Zelan txistulariak  
ez dau gogait egiten?...  
Eusko erian gagoz  
ala gasteleñan?  
Bizitza itzali da  
euskoen biotzean?

«Txistulari gaxoa  
yaurtizu txistu ori,  
ez il-eresirik yo  
gure abefi oni»...



Baña txistularia  
udal-etxe aurrean,  
ekin da ekin dago  
aratsalde gustian.

Txistuan oyartzunak  
ez diñost biotzean?  
«Ixildu ez, Euskoak  
iratxartu artean.  
«Lo-zorotik atara  
nai dot eusko-biotza,  
ez naz ixilduko ba  
galdu arte bizitza»...

Txistularia tente...  
umeak inguruan...  
azi ona yausten da  
lur samuñen bañuan...

Yaray, txistularia,  
udal-etxe aurrean  
euskotasun-ereile  
umien biotzean...

# TXISTUA TA ERESBATZA

Udabañiko aratz batean mendian negon  
edertasunai begira

Txista zolian anots gozoa, elduten zala,  
bakez nengoan tokira.

Mendi orlegi, pitxiz beteko zelai baratzak,  
neunkazan begi aúean,  
Uso antzera basefi zuri maitagafiak  
ikusten nitun úean.

Birigañoak abotz biziaz poztuten eustan  
izadi-zale biotza,  
Basefitafen «jaida idiak!» gomutarazi  
lugin zintsoen bizitza.

Neure artean esaten neban pozez beterik;  
«Eusko efi zoruntzu!,  
Mendi usañaz, txuntxun txistuen agur pozkoñ  
toki danetan ba'dantzu».

Onetan baña, afitasunez entzuten dot nik  
txistu zoliaz batean,  
eltzen yatala, astrapala antzez, soñu nastea  
iskalbilaren antzean...

«Soñu zakañok zer ikusirik ete yaukiek  
Euzko efi benetsuaz,

Atzeñi usain, dantza nastuaz kutsututeko  
gure efi baketsuak?

Utikan ortik zikinkerien ereinle zaran  
gogaikañi dan soñua!  
Yoadi laster, etoñi azan bideak zear!...  
ezik zikindu Euskoa».

Eresbatzaren otsan artean entzuten dodan  
txistuan soñu zoliak,  
esaten eustan bufuka latza atzeñitafaz  
eukola Eusko-efiak.

Eñiko yayen aúegun baten, zugatz azpian  
auxe negoan gogaltzen,  
Gure mendi ta zelai apañen edertasuna  
begiz nebala ikusten.

Txistu zolia, yolas garbia, alaitasuna,  
ekandu onen ereinle,  
atzeñitafa dan eresbatza, Eusko ekandu  
garbiaren ondatzale...

Garaitzalea guda onetan zein izango dan...  
¿Atzeñitafa? ¿Euskoa?...  
Itaun oneri erantzun bear dautsona nor dan?  
Euskotaf garbi, zintsoa...

MANTEROLA'taf G.